

# **KULTURAKO EKINTZAK ETA JARDUERAK FINANTZATZEKO DIRU LAGUNTZEN ARAUTEGIA**

## 1.- Eskumena

Arautegi hau Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzen dituen Legearen 4.1 b) eta 25. artikulua ematen dituen eskumenei jarraituz eta Korporazio Lokaleko Zerbitzuen Araudiaren 23. artikuluen eta ondorengo araberaren onartzen da.

## 2.- Helburua

Deialdi honen helburua hau da: Tolosako irabazi asmorik gabeko kultura elkarteek eta pertsonak 2016ean egingo dituzten jarduerak eta egitasmoak diruz laguntzeko Udalak erabiliko dituen irizpideak finkatzea eta prozedura zehaztea.

Jarduerak horiek, betiere, bat egin behar dute Tolosako Udalaren egitasmoen helburuekin.

## 3.- Lagunduko diren jarduerak

Diru laguntzak Tolosako elkarten kulturako ohiko jardueretarako eskatu ahal izango dira.

## 4.- Finantzaketa

Emango diren diru kopuruak urteroko udal aurrekontuaren arabera izango dira, eta Udalak ez du, horrez gain, beste diru laguntzarik emango.

Oinarri hauetan arautzen diren diru laguntzen zenbatekoa, gehienez 32.000,00€ izango da.

Zenbateko hau, 0800 481.01.33410 diru laguntzaren partidaren kargura finantzatuko da.

## 5.- Irizpide orokorrak

1. Diru laguntza hauen azken helburua dirurik irabazteko asmorik gabeko kultura zerbitzuak bultzatzea da.

2. Diru laguntza borondatezkoa da eta behin behinekoa; laguntza emateak ez dio Udalari hurrengo deialdietan ere diru laguntzak emateko derrigortasunik ekarriko.

3. Diru laguntza hauek beste batzuekin bateragarriak dira, baina aldez aurretik adierazi behar da jarduera horietarako beste erakunderen bati diru laguntza eskatu zaion ala ez. Edozein kasutan, diru laguntza guztiak batuta jasotako kopurua ez da inoiz izango gastuen % 100 baino gehiagokoa.

## 6.- Eskatzaileak

Udalaren diru laguntza eskatu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dituzte elkarteek:

- a) Udalaren kultura egiturak eta helburuak kontuan hartuta jardun beharko dute elkarte eskatzaileak.
- b) Indarrean dagoen legediaren arabera osatuta egon behar dute, eta Eusko Jaurlaritzako Elkarte eta Erakundeen erregistroan errolatuta.
- c) Identifikazio Fiskalerako Kodea izan behar dute eta zerga betebeharretan egunean egon.
- d) Elkartearen egoitza edo ordezkaritza iraunkorra Tolosan izan behar dute.
- e) Udalaren lokalen bat erabiltzen duten elkarteek, Udalarekin hitzartutako erabilera arauak zorrotz bete beharko dituzte.
- f) Eskatzaileek modu ez-sexistan erabiliko dituzte hizkuntza nahiz irudiak subentzionatutako egitarau, asmo eta gainerako jarduerak sustatzeko sortutako kartel, testu eta dokumentuetan.

Diru laguntza hauen onuradun izaera lortzeko betebeharrak azaroaren 17ko 38/2003 Diru Laguntzen Lege Orokorren 13. artikuluan xedatutakoak izango dira.

## 7.- Eskaeren aurkezpena

Eskaera egiteko, eranskinean jasotako eskaera orria bete behar da. Egitasmo edo jardueraren arduradunak **eskaera orri ofizialaren ([www.tolosa.eus/dirulaguntzak](http://www.tolosa.eus/dirulaguntzak)) atal guztiak bete beharko ditu** eta, ondoren, Udaleko erregistroan aurkeztu., arduradun edo ordezkariaren firma jarrita.

**Eskaerak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, G.A.O.n deialdiaren estraktua argitara ematen den hurrengo egunetik hasita (udaleko erregistroan aurkeztu ahal izango dira, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara). Azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna**

## **izango balitz, epea hurrengo lanegunera arte luzatuko litzateke.**

Eskaera orri ofizialaz gain, elkarteak jarduerari buruzko txosten xehatua aurkeztu beharko du.

Diru laguntza lehendabiziko aldiz eskatzen dutenek, eskaera orri ofizialaz gain, ondoko agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- Eusko Jaurlaritzako kultur elkarte edo erakundeen erregistroan erroldatuta daudela ziurtatzen duen agiria.
- Elkartearen estatutuak.
- Elkartearen *curriculum vitae*-a. Elkartea eta zuzendaritza osatzen dutenei buruzko datu desagregatuak, orain arte egindako jarduerak, helburuak, giza-baliabideak. materialak....
- Arduradun(ar)en nortasun agiriaren fotokopia.
- Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.

### 8.- Diru laguntzak emateko ebaluazioa eta irizpideak

Kultura batzordeak aztertu eta ebaluatuko ditu eskaerak, eta berak diktaminatuko ditu lehentasunak eta eman beharreko zenbatekoak. Ondoren, txostena egingo du, behin betiko erabakia hartzeko.

Diru laguntzak emateko baloratuko diren puntuak hauek dira:

- Elkartearen sendotasuna eta herrian daukan pisua: 10 puntu
- Atal teknikoen, barne antolakuntzako eta administratiboaren kalitatea: 20 puntu
- Elkartearen urteko egitasmoan kultura bultzatzeko egindako lana eta Tolosako Udalarekiko elkarlana: 40 puntu.
- Genero ikuspegia eranstea egitasmoa (justifikazioa, helburuak, jardueak, metodologia eta ebaluazio-indikadoreak) garatzeko orduan. Era berean, jarrera ez-estereotipatuetatik emakumearen parte hartze aktiboa sustatzea eta beraien autojabetzea bultzatzea:
  - 10 puntu
- Euskararen sustapena: 10 puntu. Honoko irizpideak jarraituko dira:

Elkartearen barne jardueran euskara hutsa erabiltzen bada 4 puntu, eta ele bien erabilera puntu 1.

Elkartearen kanpora begirako jardueran euskara hutsa erabiltzen bada 4 puntu, eta ele bien erabilera puntu 1.

- Elkarteen elkarlanaren sustapena: 10 puntu

### 9.- Diru laguntzen ordainketa

Diru laguntzak bi epetan ordainduko dira: Erabakiaren jakinarazpenarekin batera taldeari diru laguntzaren %75 ordainduko zaio.

Honetarako honoko dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren ziurtagiri eguneratua, elkarteak zerga obligazio formalak betetzen dituela azalduko duena.

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorreko ziurtagiria, elkarteak erakunde horrekiko zorrik ez daukala azalduko duena.

Gainerako %25 jarduera edo egitasmoaren kontu justifikagarria jasotakoan ordainduko da.

Memoria hori **hurrengo urteko urtarrilaren 31a baino lehen** aurkeztu beharko da eta dokumentu hauek osatuko dute:

a) **Jardueren Memoria**, dirulaguntza jaso duen betetako ekintzarena; dirulaguntzarekin finantzaturako jardueren azalpen xehatua eta kostua jaso beharko ditu.

Memoriak, gutxienez, atal hauek izango ditu:

-Programaren edo proiektuaren izena.

-Dirulaguntza ematearen helburua, aurkeztutako aurrekontuaren eta proiektuaren arabera.

-Jarduerari buruzko zerrenda xehetua, helburuen eta lortutako emaitzen deskribapena, eta, objetibagarria den kasuetan, parte hartze datuak, sexuaren arabera sailkatuta.

-Proiektua edo jarduera garatzean egindako aldaketak.

-Finantza baliabideen zerrenda: Dirulaguntzarekin finantzaturako jardueren deskribapena eta kostua, baita beste dirulaguntza batekin edo onuradunen diruarekin finantzaturako beste jarduera batzuen ere.

- Ondorioak.

b) **Memoria Ekonomikoa**, egindako jardueren kostua justifikatuko duena; gutxienez dokumentu hauek bilduko ditu:

Ø Diruz lagundutako jardueren diru-sarreraren eta gastuen balantzea, erakundearen idazkariak sinatutakoa eta dagokion zigiluarekin.

Ø Izandako gastuak eta lortutako diru-sarreraren zerrenda ordenatua eta sekuentzialki zenbatutakoa, kontzeptuka antolatuta eta emaitzak guztira islatzen dituen. Gastuen zerrendak hau jasoko du:

- Hartzekodunaren nortasuna

- Dokumentuaren identifikazioa
- Zenbatekoa
- Igorpen data
- Ordainketa data

Ø Merkataritza zirkulazio juridikoan baliokide diren fakturak edo dokumentuak, edo administratiboki eraginkorrak direnak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan jasotzen direnak, eta hala badagokio, ordainketaren dokumentazio akreditatiboa. Dokumentu horien fotokopiak aterako dira eta konpultsatu egingo dira; kudeaketa zerbitzuak berretsiko ditu eta jatorrizko dokumentuak interesatuei itzuliko zaizkie. Jatorrizko dokumentuak edo kopia konpultsatuak erakunde onuraduneari geratuko dira gutxienez lau urtez.

Ø Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarreraren eta dirulaguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adieraziz.

Aurreko guztiaz gain, gastuei dagokienez eskakizun hauek ere bete beharko dira:

- Langileei dagozkien gastuak soldata-gastu gisa justifikatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira: lan kontratuen kopiak, hartzaileek sinatutako dagozkien nomina ordainduak, edo hala badagokio, bankuko abonua-agiria, eta Gizarte Segurantzaren kotizatu izanaren ziurtagiriak.

Udal langile-teknikari eskudunek **balioespen txostena** idatziko dute; dokumentuan argi azalduko da dirulaguntzaren objektua erabat bete dela, edo justifikazioa onartu ezin duten gabeziak edo egoerak daudela. Inbertsioetarako dirulaguntzen kasuan, egindako egiaztapen materialaren emaitza jasotzen duen akta edo txostena.

Aldi berean, aurretik proposamenean azaltzen ziren emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko helburuarekin hartutako neurrien inguruko balorazioa egin beharko da.

Memoriarekin batera, elkarteak agiri hauek ere aurkeztu beharko ditu:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren ziurtagiri eguneratua, elkarteak zerga obligazio formalak betetzen dituela azalduko duena.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorreko ziurtagiria, elkarteak erakunde horrekiko zorrik ez daukala adierazten duena.

Bigarren ordainketa, aurreko tramite eta betebeharrak guztiak bete ondoren egingo du Udalak.

Agiriok aurkezten ez badira, elkarteak galdu egingo du onartutako zenbatekoa.

Ezohiko kasuetan udal kultur batzordeak diru laguntzen ordainketa beste moduren batera egitea diktamina dezake.

## 10.- Baldintzak ez betetzea

Oinarriotan jarritako baldintzak betetzen ez badira, diru laguntza emateari utzi egingo zaio, eta halakoetan, gainera, aurrez jasotako diru guztia itzuli egin beharko du elkarteak.

## 11.- Interpretazioa

Oinarri hauetan ez araututako guztiari diru laguntzei buruzko ordenantza orokorra aplikatuko zaio.

### AZKEN XEDAPENA

Udalaren helburuetara modu progresiboan iristeko, 2016. urtean kontuan hartuko da, diru laguntzen kopurua zehazterakoan, aurreko urtetan elkarte bakoitzak jasotakoa,

elkarteen proiektuetan etenik egon ez dadin. Kontuan hartuko da, baita ere, elkarteak aurreko urtean egindako jardueren balantzea.